



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Getxoko Udala

Getxoko Udaltzaingoko Agente izeneko hamaika lanpostu betetzeko deialdia onartzea, lehiaketa sistemaren bidez.

Abenduaren 29ko Alkatezaren 5289/2016 Dekretuaren bidez, Getxoko Udalak honako ebazpen hau hartu du:

«*Lehena*: Getxoko Udaltzaingoko Agente izeneko hamaika lanpostu betetzeko deialdia onartzea, lehiaketa sistemaren bidez.

Segundo: Deialdiaren oinarriak onartzean, Dekretu honetan eranskin modura azalduko dira.

Hirugarrena: Oinarriak oso osorik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea.



ERAINSKINA

**GETXOKO UDALEKO UDALTZAINGOKO AGENTE POSTUAK (GAUA / JAIEGUNAK)
MEREZIMENDUEN LEHIAKETAREN BIDEZ HORNITZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK****Lehenengoa. — *Lehiaketaren xedea***

EAEko Poliziaren 1991ko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 67. artikularekin eta abenduaren 22ko 388/1998 Dekretuz onetsitako EAEko Polizia Kidegoetako Funtzionarioen Lanpostuak Betetzeko Araudiaren 3. artikularekin bat etorritik, merezimenduen lehiaketako sistemaren bidez Udaltzaingoko agenteko (gaua/jaieguna) hamaika postu betetzeko deialdi publikoa iragartzen da. Ezaugarri hauek dauzka:

- Izendapena: Agentea.
- Lanpostuen zerrendako kodea: 2977-368-179.
- Eskala: Administrazio berezia.
- Taldea: C1.
- Lanpostu-mailako osagarria: 14.
- Osagarri berezia: 22.426,3 euro.
- 2. hizkuntz eskakizuna, derrigortasun data:
 - 2977: 2003-01-01.
 - 368: 2000-01-01.
 - 179: 1994-05-31.
- Titulazioa: Eskola graduatua.
- Oharrak: Gauak/Jaiegunak.
- Lantokia: Alangos eraikina.
- Eginkizunak: Getxoko Udaleko Udaltzaingoaren Araudiko 25, VII) artikuluan jasotakoak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 118. zenbakian, 2004ko ekainaren 22koa, argitaratuta.
- Izendapena: Agentea.
- Lanpostuen zerrendako kodea: 207-154-150-148-153-152-151-203.
- Eskala: Administrazio berezia.
- Taldea: C1.
- Lanpostu-mailako osagarria: 14.
- Osagarri berezia: 22.426,3 euro.
- Euskarako hizkuntz eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe.
- Titulazioa: Eskola graduatua.
- Oharrak: Gauak/Jaiegunak.
- Lantokia: Alangos eraikina.
- Eginkizunak: Getxoko Udaleko Udaltzaingoaren Araudiko 25, VII) artikuluan jasotakoak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 118. zenbakian, 2004ko ekainaren 22koa, argitaratuta.

Bigarrena. — *hautagaien baldintzak*

Deialdi honetan parte har dezakete Getxoko Udaleko Udaltzaingoko funtzionarioek, C1 taldean, zerbitzu aktiboko egoeran badaude, zerbitzu berezietan, seme-alabak zaintzeko eszedentzian eta EAEko Poliziaren Legearen 82. artikuluan ezarritako eszedentzian daudenak, baita zerbitzu aktiboko egoerara itzultzen diren funtzionarioak ere, lege horren 89.2 artikuluan ezarritako moduan, baldin eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean deialdiko betekizunak eta baldintzak betetzen badituzte.

Era berean, prozedura hauen bidez zerbitzu aktiboan berriro sartuz lehiatu ahal izango dira behartutako eszedentzian daudenak, beste administrazio publiko batzuetan lanean ari direnak edo birgaitu direnak, Poliziaren Legearen 63. artikuluan xedatuta-



koarekin bat etorri, eta suspendituta daudenak ere bai, sei hilabete baino denboraldi luzeagoetan, eta gainerako borondatezko eszedentziadunak, baldin eta horrelako egoerarako ezarritako iraupenak bete badute.

Behin-behineko destinoa duten funtzionarioek, egoera horretan dauden bitartean, euren kidego eta eskalako lanpostuak betetzeko egiten diren lehiaketetan derrigorrez parte hartu behar dute.

Deialdi honetan parte hartzeko, ezinbestekoa izango da gutxienez bi urte igarotzea jatorrizko lanpostuaz jabetzetik aurrera, 4/1992 Legearen 69.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorri. Denborazko muga hori ez zaie aplikatuko behin-behineko atxikipen egoeran dauden pertsonen, salbu eta egoera hori lege horren 70.2.c) artikuluan ezarritakoaren arabera beste postu bati uko egitetik ondorioztatu bada.

Hirugarrena. — Eskabideak aurkezteko epea eta pertsona onartu nahiz baztertuen zerrenda

1. Lehiaketa honetan parte hartzeko eskaerak, Getxoko alkate jaunari zuzenduak, Herritarren Arreta Bulegoetan, aurkeztuko dira 15 laneguneko epean, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Gainera, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren bulegoetako edozeinetan aurkeztu ahalko dira.

2. Hautagaiak eskaerarekin batera deialdian eskatutako baldintzak justifikatzeko dokumentazioa aurkeztuko dute, Getxoko Udaleko Langile, Antolaketa eta Informatikaren Arloaren esku ez badaude.

3. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, ahalik eta lasterren, udaleko iragarkien ohelean pertsona onartu eta baztertuen zerrenda argitaratuko da. Zerrendan hautagaien izena, bi deiturak eta, hala badagokio, ez onartzeko arrazoiak azalduko dira. Baztertutako pertsonen hamar eguneko epea izango dute akatsak zuzentzeko. Okerrak (baleude) zuzendu ondoren, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda modu berean argitaratuko da.

Laugarrena. — Puntuak, baremoa eta merezimenduak

Lehiaketa honetan, eskaintako lanpostuen ezaugarrietarako egokiak diren merezimenduak baloratuko dira.

Gehienez ere 16 puntu lortu ahal izango dira, eta gutxienez 7 puntu eskuratu behar dira hautatua izateko aukera izateko. Hizkuntz eskakizunik gabeko postuei dagokienez, 1,60 puntuko puntuazio osagarria eskuratu ahal izango da, baina ez da aipatutako gutxienezko eta gehieneko puntuazioan kontuan hartuko.

Lanpostuak adjudikatzeko merezimenduen balorazioa baremo honen arabera egingo da:

a) Antzinasuna: gehienez 5 puntu.

Ertzaintza eta Udaltzaingoko kidegoetan lan egindako urte oso bakoitzeko: 0,50 puntu, agente kategoriako urte bakoitzeko. Urtea osatzen ez duten zerbitzuak hilen arabera proportzionalki baloratuko dira.

Ondorio horietarako, karrerako funtzionario gisa sartu aurreko praktika aldi eginiko lana kontuan izango da. Alegatutako beste batzuekin aldi berean eskaintako zerbitzuak ez dira zenbatuko.

b) Norberaren graduaren balorazioa: gehienez puntu 1, baremo honen arabera:

— Norberaren gradua eskatutako lanpostuaren mailaren berdina edo handiagoa bada: puntu 1.

— Gradu pertsonala eskatutako lanpostuarena baino maila bat txikiagoa bada: 0,5 puntu.

c) Eginiko lanaren balorazioa: gehienez 5 puntu. Lanpostuetan lehenago eginiko lana baloratuko da, betetako funtzioen eta orain bete beharreko lanpostuaren funtzioen antzekotasuna kontuan izanik betiere.



Bereganatutako esperientziari dagokionez, deialdia argitaratu egunaren aurreko hamar urteetan, gehienez 5 puntu emango dira, honela banatuta:

- Agente lana gauzez/jaiegunetan egiteagatik: puntu 1 urte bakoitzeko.
- Beste edozein agente postu betetzeagatik: 0,50 puntu urte bakoitzeko.

Egindako lanaren balorazioa, aipatutako faktoreak kontuan izanik, urte osoetan egingo da. Hilabete osoak proportzioan baloratuko dira eta zatiki txikiagoak ez dira kontuan izango.

d) Trebakuntza eta hobekuntza ikastaroak: 3 puntu, gehienez:

Gaiztutako trebakuntza eta hobekuntza ikastaroak, lanpostuen berezko eginkizunekin zerikusia duten gaien buruzkoak, EAEko Polizi Ikastegiak irakatsi edo baliozkotu dituenak:

- 0,20 puntu, gehienez 10 orduko iraupena daukan ikastaro bakoitzeko.
- 0,40 puntu, 10 ordutik 20 ordura bitarteko ikastaro bakoitzeko.
- 0,60 puntu, 20 ordutik 40 ordura bitarteko ikastaro bakoitzeko.
- 0,80 puntu, 40 ordutik 80 ordura bitarteko ikastaro bakoitzeko.
- 1 puntu 80 ordutik gorako ikastaro bakoitzeko.

Deialdietan parte hartzeko edota eskala eta kategoria egokietan sartzeko ezinbestekotzat jotzen diren ikastaroak ez dira baloratuko.

e) Titulazio eta gradu akademikoak

Titulu akademikoak edukitzeagatik gehienez puntu 1 emango da, baremo honekin bat etorritz:

- Administrazio A Taldeko A1 Azpitalderako beharrezko titulazioen kasuan, edo gradu ondoko edo doktore tituluaren kasuan, eta deialdiaren xede den lanpostuaren zereginekin harreman zuzena dutenean: 0,30 puntu titulu bakoitzeko.
- Administrazio A Taldeko A2 Azpitalderako beharrezko titulazioen kasuan eta deialdiaren xede den lanpostuaren zereginekin harreman zuzena dutenean: 0,25 puntu titulu bakoitzeko.
- Administrazio C Taldeko C1 Azpitalderako beharrezko titulazioen kasuan eta deialdiaren xede den lanpostuaren zereginekin harreman zuzena dutenean: 0,20 puntu titulu bakoitzeko.
- Administrazio A Taldeko A1 Azpitalderako beharrezko titulazioen kasuan, edo gradu ondoko edo doktore tituluaren kasuan, eta deialdiaren xede den lanpostuaren zereginekin harreman zuzena ez dutenean: 0,15 puntu titulu bakoitzeko.
- Administrazio A Taldeko A2 Azpitalderako beharrezko titulazioen kasuan eta deialdiaren xede den lanpostuaren zereginekin harreman zuzena ez dutenean: 0,10 puntu titulu bakoitzeko.
- Administrazio C Taldeko C1 Azpitalderako beharrezko titulazioen kasuan eta deialdiaren xede den lanpostuaren zereginekin harreman zuzena ez dutenean: 0,05 puntu titulu bakoitzeko.

Deialdietan parte hartzeko edota eskala eta kategoria egokietan sartzeko ezinbestekotzat jotzen diren titulazioak ez dira baloratuko.

F) Beste merituz batzuk: sariak eta kondekorazioak. Udaltzaingoko kideen jardunaren ondorioz emandako sariak eta kondekorazioak baloratuko dira, gehienez ere puntu bateraino, baremo honekin bat etorritz:

- Polizia-lanaren errekonozimenduaren domina: puntu 1.
- Polizia-zerbitzuaren diploma: 0,75 puntu.
- Zoriontze pertsonala, publikoa nahiz pribatua: 0,50 puntu zoriontze bakoitzeko.

*Euskara*

148, 150, 152, 151, 153, 203, 207 eta 154. lanpostuetarako, 2. hizkuntz eskakizunarekin, derrigortasun data mugaeguneratu gabe, hizkuntz eskakizuna euskara jakiteari merezimendu gisa ematen zaion balorazioa zehazteko soilik erabiliko da, baremo honen arabera:

- 1,60 puntu euskarazko 2. hizkuntz eskakizuna edukitzeagatik.
- 0,80 puntu euskarazko 1. hizkuntz eskakizuna edukitzeagatik.

Aurreko balorazioak ez dira metagarriak.

Bosgarrena. — *Merezimenduak eta baldintzak baloratu eta egiaztatzea*

1. Merezimenduak baloratzeko erreferentzia eskaerak aurkezteko epearen bukaera izango da.

2. Eskabidearekin batera halaberharrez alegatutako merezimenduak aipatzen dituen aitopena aurkeztuko da. Getxoko Udaleko Langile, Antolaketa eta Informatikaren Arloaren esku daudenean izan ezik, merezimenduak dokumentuen bitartez egiaztatuko dira parte hartzeko eskaerari erantsiz.

3. Eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu eta justifikatuekiko merezimendu desberdinak ezingo dira baloratu, ezta, epearen barruan alegatu arren, ondoren justifikatzen direnak ere.

4. Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, alegatutako (eta akreditutako) merezimenduak egiaztatzeko argipenak edo, beharrezkoa bada, agiri osagarriak eskatu ahalko zaizkie interesatuei balorazio prozesuan.

Seigarrena. — *Balorazio batzordea*

1. Balorazio batzordea kide kopuru bakunak osatuko du (gutxienez bost). Kideak alkateak izendatuko ditu. Horietako batek presidente lanak egingo ditu eta besteak idazkari lanak. Bakoitzaren ordezkaria ere izendatuko da. Batzorde horretako kide izango da sindikatuak proposatutako pertsona bat.

2. Balorazio batzordeak deialdia egin duen agintaritzari aholkulari bezala jarduteko adituak izendatzea eska diezaioke. Horiek ahotsa izango dute, baina ez botorik.

3. Balorazio batzordeko kideek deitu den postua betetzeko behar den maila akademiko bereko edo handiagoko titulazioa izan behar dute.

4. Balioztapen Batzordeak independentzia osoz, bere hautazko iritzi teknikoaren arabera eta objektibotasunez jardungo du eta bere proposamenak administrazioarentzat lotesleak izango dira. Balorazio batzordearen jarduketek duten zuhurtziarakotasun teknikoa gorabehera, bere ebazpenak motibatu egin behar dira, deialdiko oinarriak eta araudia betez.

5. Balorazio batzordearen eraketa eta jarduna oinarri hauetan ezarritakoaren bidez, aplikatu beharreko araudiaren bidez, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen bidez arautuko dira.

6. Epaimahaietan parte hartzeagatiko bertaratzeak, kolaborazioak e.a. Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan eta ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuan (zerbitzuaren ondorioz eman beharreko kalte-ordainen dekretuaren hirugarren aldaketari buruzkoa) xedatutakoaren arabera arautuko dira.

Zazpigarrena. — *Komunikazioak eta jakinarazpenak*

Prozeduraren ondorioz, Balorazio batzordearen komunikazio eta jakinarazpen guztiak Getxoko Udaleko iragarkien ohelean eta webgunean argitaratuz egingo dira.

**Zortzigarrena.— Adjudikazio-proposamena eta berdinketak ebaztea**

1. Balorazio batzordeak adjudikazio proposamena egingo du, azken puntuazio handiena jasotzen duenari eman behar zaiona, baldin eta exijitzen den gutxienekoa jaso badu. Hautagaiak eskuratzen dituzten puntuazioak, ebaluatu beharreko kontzeptu bakoitzeko, eta azken balorazioa, hartara egingo den aktan islatu behar dira.

2. Puntuazioan berdinketa gertatzen bada, merezimendu orokorrean emandako puntuazioa izango da kontuan, aipatutako ordenan. Berdinketa hausten ez bada, lehiatzen ari den kategorian karrerako funtzionario zein dataz geroztik den aztertuko da, eta bestela, lanpostu horretan sartzeko hautaketa prozesuan izandako ordena.

3. Balorazio batzordearen proposamena jendaurrean erakusteko, Getxoko Udala-ren Iragarki Oholean eta webgunean argitaratuko da, hala erabakitzen duenean. Erabaki horren aurka, lehiakideek erreklamazioak egin ahal izango dituzte, hamar asteguneko epean, erabakia argitaratu ondoko egunetik aurrera. Erreklamazioak balorazio batzordeak ebartziko ditu.

4. Lehiakideek, nahi badute, lehiaketa osoan parte hartzeari uko egin ahal diote, adjudikazioa egin aurretik betiere. Betiere, atzera egitea balorazio batzordearen aurrean erreklamazioak egiteko epea bukatu aurretik egin behar da.

Bederatzigarrena.— Ebazpena

1. Balorazioa egindakoan eta, erreklamaziorik balego, erreklamazioak ebaztita, balorazio batzordeak eskainitako lanpostuak adjudikatzeko proposamena egingo dio organo eskudunari, parte hartzaile bakoitzaren puntuazio ordenaren arabera, betiere EAEko Poliziaren Legean eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritako lehenespen eskubideen arabera.

2. Proposamena jasotakoan, alkateak lehiaketa ebartziko du. Ebazpena deialdiko oinarriak eta arauak aipatuz arrazoituko da. Betiere, dagokion prozedura betetzen dela eta hautagaien merezimenduen azken balorazioa frogatu behar dira prozeduran, hartutako ebazpenaren oinarri gisa.

3. Lehiaketak ebazteko epea bi hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoko egunetik aurrera zenbatuta.

4. Lehiaketa ebartzitakoan, agintari eskudunek ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko dute.

Getxon, 2017ko abuztuaren 25ean.—Behin-behineko Alkatea (Alkatearen uztailak 21eko 3052/2017 Dekretu bidez eskuordetu), Koldo Iturbe Mendilibar